ESPAZIOKO LEHIA

Sobietar Batasunak hasi zuen aro espaziala 1957. urtean, estreinako komunikazio-satelitea,«Sputnik I» izenekoa, espaziora jaurti zuenean. Urte horretan bertan, Sobietar Batasunak lehen izaki biziduna bidali zuen espaziora, Laika izeneko txakur emea, eta 1961. urtean, berriz, lehen astronauta, Juri Gagarin izeneko gizona.

Ordutik hasita, Amerikako Estatu Batuek ere aurrera egin zuten espazioko lehia hartan eta 1969. urtean bertako bi astronautak, Neil Armstrong-ek eta Edwin Aldrin-ek, Ilargi gainean paseotxo bat ematea lortu zuten.

1981. urteaz geroztik, transbordadore espazialak bilakatu ziren lehia berezi horren protagonista nagusi. Transbordadore espazialak espaziora irten, egin beharrekoa egin eta, ondoren, hegazkin arruntak bezala lurrera daitezkeen ontziak dira. Hala, beste zeregin batzuetarako ere erabil daitezke.

Gaur egun, espazio-ikerketen helburu nagusietako bat pertsonen bizileku bezala erabiltzeko moduko orbita- estazioak eraikitzea da.



1973. urtean Estatu Batuek lehen espazio-estazioa finkatzea lortu zuten, «Skylab» izenekoa. Hurrengo urtean, Sobietar Batasunak horrelako beste estazio bat eraiki zuen: «Saljut» izenekoa, eta 1986az geroztik urte mordoan izan dute espazioan MIR estazioa.

LIVEWORKSHEETS
LIVEWORKSHEETS

MIRean sei hilabetetik behin txandakatzen ziren bi astronauta bizi izan dira orain gutxi arte.

1990. urteko apirilaren 25ean «Hubble» teleskopioa jaurti zen espaziora. Hamabi tonako tramankulu horri esker, urte bereko maiatzaren 20an izar bikoitz baten irudiak heldu ziren Lurrera. Izar hori Theta Carina izeneko konstelazioan dago eta ezin ikus daiteke Lurraren gainazaletik teleskopio arrunt baten laguntzaz. Esne Bideko konstelazio hori 1.260 argi urtera dago gure planetatik.

GALDERAK

1. Zer da «astronauta»?

O Astronomiako ikaslea. O Espazio-ontzi bateko eskifaiakidea.

2. Zer esan nahi du irakurgaian «orbita» hitzak?

O Lurreko puntu batetik bestera doan ibilbide espaziala.

O Lurraren inguruko ibilbide zirkularra.



3. Zer da transbordadore espaziala?

a). Hegazkin arruntak dira

b). Pertsonak bizi diren espazio estazioak dira

c). Espazio ontziak dira, eginkizuna burutu ondoren lurreratzen direnak

4.Nork hasi zuen aro espaziala? Zein urtetan?

a). Sobietar Batasunak 1957. urtean

b). Amerikako Estatu Batuak 1969. urtean

c). Sobietar Batasunak 1961. urtean

d). Amerikako estatu Batuak 1981. urtean

5. Idatzi espazioan zehar bidaiatu zuen lehen izaki bizidunaren izena.

_____

LIVEWORKSHEETS LIVEWORKSHEETS

6. Nor izan zen ilargira heldu zen lehen gizakia

a). Yuri Gagarin

b) Neil Amstrong

c) Edwin Aldrin

d) Neil Amstrong eta Edwin Aldin

7. Zein izan da gaur arte bizileku gisa urte gehien erabili izan den espazio-estazioa?

_____

8. Zer da «Hubble» izenekoa?

_____

9. Lotu lehen zutabeko elementu bakoitza bigarren zutabeko elementu egokiarekin.

1-Juri Gagarin	-Lehen espazio-estazioa
2-Sputnik I	-Lehen astronauta
3-Skylab	- Lehen komunikazioa-satelitea

10. Zein da «Espazioko lehia» irakurgaiaren ideia nagusia?

O Espazio-ikerketetan urteetan izan den norgehiagoka.

O Espazio-ontzien arteko lasterketak.

LIVEWORKSHEETS
LIVEWORKSHEETS